

Ahozko Hiztegia

Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria, Aitor Iglesias

UPV/EHU

g.aurrekoetxea@ehu.es, inaki.gaminde@gmail.com, aintzane.etxebarria@ehu.es, txadonak@gmail.com

Abstract

This article outlines the steps taken towards the completion of the *Ahozko Hiztegia* project. The decisions made to establish the accent system at word level conform, without any doubt, the project's novel contribution. In the introduction we mention our main objectives, and we divide the work into four sections. In the second section, and following a description of the original project's starting point, an outline of its later development is drawn. During the course of the project, work has been carried out in different fields. As far as theory goes, we give an account of the work done in order to set up the rules of the standard accent system, and the rules of the proposed system are provided. The strategy, the technique and the juridical aspects are also described. An account of the hypothetical users kept in mind over the making of the *Ahozko Hiztegia* is given in the third section. Clearly, in complex projects like this, a lot of people take part, and therefore, a fourth section was needed to collect the numerous contributions of all those who helped.

Laburpena

Artikulu honetan AHOZKO HIZTEGIA asmoa burutu ahal izateko egin behar izan diren urratsak azaltzen dira. Lan honen ekarpenik berriena, ezberrik gabe, hitz mailako azentu-sistema finkatzeko hartu behar izan diren erabakiek osatzen dute. Sarreran asmoaren nondik norako nagusiak aipatutakoan lana lau azpi-ataletan banatuta aurkezten da. Bigarren azpi-atalean hasierako asmoaren abiapuntua deskribatu ondoren, geroko garapena aurkezten da. Proiektuaren garapenean arlo desberdinetan egin behar izan da lan. Arlo teorikoan azentu-eredu estandarerako arauak finkatu ahal izateko egin diren lanak azaltzen dira, eta proposatzen den ereduaren arauak eurak aurkezten dira. Honez gain arlo estrategikoa, teknikoa eta juridikoa ere azaltzen dira. Hirugarren atalean *Ahozko Hiztegia* egitean gogotan eduki ditugun balizko erabiltzaileak zeintzuk izan diren ikusten da. Argi dago honen moduko proiektu konplexuetan jende askok hartzen duena parte eta askoren ekarpenak bildu behar direnez gero, laugarren atalean, parte hartzaile guztien ekarpenak agertzen dira.


Keywords: dictionary, standard, accent.

Hitz gakoak: Hiztegia, Estandarra, Azentua.

1. Aurkezpena

Aspaldiko asmoa da ahozko hiztegi batez euskara aberastea. Aspaldiko asmoa eta behin baino gehiagotan, batek baino gehiagok eskatutakoa. Izan ere, euskararen balio soziala handituz doan heinean, ezinbesteko bihurtu da euskararen corpusa bere osotasunean hartzea. Arlo askotan aurrerakada handiak eman dira, izan dadin lexikoan, izan dadin gramatikan, izan dadin toponimian... Prosodia da aurreratu beharreko alorretan indarreen gelditu den horietako bat.

Prosodia definitzea ez da erraza, hainbat dira bibliografian aurki ditzakegun definizioak eta. Guk hemen, Gaminde eta lag. 2011 eta Gaminde eta lag 2012 lanei jarraikirik, komunikazio-gaitasunaren azpi-gaitasuntzat joko dugu. Bestalde, esan dezakegu prosodia segmentuez haratago dagoen guztiaz arduratzen dela; hau da, silaba egituraz, azentuaz, tonuaz, intonazioaz, eta abarrez.



1. Irudia: Prosodiaren bidez transmititzen diren informazio motak (Fujisaki 2004).

Prosodiaren bidez jasotzen diren informazio motak hiru eratakoak dira (Fujisaki, 2004), linguistikoak, paralinguistikoak eta ez linguistikoak (1. irudia). Euron arteko mugak beti zehatz markatzea zaila den arren, bakoitzaren eremua irudikatzen ahaleginginduko gara.

Informazio linguistikoa sinbolo diskretu eta arau multzotzat definitzen da. Berau hiztunaren gaitasun linguistikoaren partetzat hartu behar da; gramatikaren osagaiei bagaiozkie, arau fonologikoen artean kokatzen da eta azentuarekin, tonuarekin eta intonazioarekin zerikusia dauka. Intonazioaren arauak bere baitan biltzen direnez gero, sintaxiarekin erlazionatuta dago, esaldien egitura, foko mota eta abarren berri ematen ezinbesteko elementutzat jo behar da.

Informazio paralinguistikotzat intentzioa, jarrera eta hizkera estiloak jotzen dira; eurok arteragokoen moduan hiztunaren kontrolpean daude. Informazio paralinguistiko hauek gaitasun pragmatikoarekin guztiz lotuta agertzen dira. Intentzioen kasuan argi dago hiztunak zerbait lotu nahi duena eta helburu bat daukana, horretarako erabiltzen du hizkuntza une horretan. Jarrerrei dagokienez, esan dezakegu oso lotuta agertzen direla kortesiaren teoriarekin (Brown eta Levinson, 1978, 1987). Azkenik, hauekin batera estiloak zerikusia edukitzen du jaulkitze abiadarekin, edo berbaldiari eman nahi zaion erregistroarekin, continuum baten jarrita, erregistro informaletatik aranditsuenetara joan gitezke.

Informazio ez-linguistikoa adina, generoa, izaera, egoera fisikoa eta emozionala moduko faktoreei dagokie; faktoreok ez daude zuzenki lotuta hizkeraren eduki linguistiko eta paralinguistikoekin, hiztunak ez ditu kontrolatzen, nahiz imita ditzakeen. Hiztunaren ezaugarri hauek soinuaren tasunetan eragiten dute eta bariazio prosodikoaren eragileak dira. Era berean bariazio prosodikoak erabiltzen dugu hiztunaren ezaugarriez inferentziak egiteko, iritziak sortzeko eta baita ezagutzeko ere.

Prosodiaren funtzio linguistikoak aztertzen ditugunean hizkuntzaren edo barietate baten arau gramatikal komunak aztertzen ditugu. Paralinguistikoetan mintzatzaileak egiten duen adierazpidearen kontrolaren berri ematen da, beraz neurri handi baten berauek aztertzean mintzakideen arteko interakzio linguistikoaren berri ematen dugu. Funtzio ez linguistikoak aztertzean mintzatzaile soilaren berri aztertzen da, dela alde fisikotik generoa, adina edo egoera fisikoaren adierazgarriak aztertzean, dela aldarrearen aldetik emozioak aztertzean.

Ahozko hiztegia egiteko egin behar izan dugun lanetako bat prosodiaren alde linguistikoan kokatzen da. Hau da, azentuari dagokion arloan eta beronen barnean hitz mailako azentuazioari dagokiona. Honek esan nahi du hemen aurkezten duguna ez dela euskal azentu estandarren gaineko eredu osoa, horretarantz eraman gaitzakeen lehenbiziko urratsa baizik. Bestalde, prosodiaren esparru osoan aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa da azentuaren kokagunea zehaztea, izan

ere, intonazio ereduak ikertzeko eta proposatzeko azentuaren kokagune zehatza jakin behar da derrigor.

Azentuaren arloan ere asko aurreratu da azken urteotan. Abiapuntuan agian Txillardegiren tesia (1984) ipini beharko litzateke. Sasoi horretan jarri zen ikertzen belaunaldi berria eta ondorengo urteetan ikerketen eta argitalpenen ekoizpena ikaragarri ugaldtu da, batez ere J. I.Hualde, I.Gaminde eta G. Elordietaren ekimenarekin lotua. Lan horien bidez, ikasiz joan gara poliki-poliki hizkera desberdinetan eta euskalkietan zehar nola gauzatzen diren azentua eta intonazioa.

Berrikitan beste bultzada bat emateko gogoz, EUDIA ikerketa-taldeak bi proiektu abiarazi ditu: a) EDAK proiektua¹, zeinen bidez azentu-intonazioari buruzko galdesorta bat aplikatu duen euskararen ohiko euskalkiak barne hartzen dituzten 100 herritan; b) Euskararako ToBi sistema sortzea (Creación del ToBI para la lengua vasca (Eusk_ToBI) y las herramientas didácticas para su aplicación en la enseñanza de la lengua vasca)².

Lehen proiektuan euskararen aldaeretan erabiltzen diren azentu desberdinak ikertzeko corpusa biltzea zen helburu. Bildutako datuekin 50.000 erregistrotako corpusa osatu da. Datu horiek, bai audioa eta bai transkribaketa ere, EDAK datu-basean bildu dira eta interneten jarri, edonork kontsultatu ahal izateko moduan (aholab.ehu.es/EDAK/2/). Esan behar da, inoiz azentuari buruz bildu den material homogeneo handiena dela³. Batetik datu hauek kontuan izanik eta bestetik I. Gamindek (2011) euskara batuan egiten denean hizkunek ekoizten duten azentu-ereduak kontuan izanik, abagune egokian aurkitzen gara euskara baturako azentu-eredu bat proposatzeko.

Bigarren proiektuan euskara baturako prosodia proposatzeko ikerlanak egin eta euskalkietan zehar gordetzen diren eta erabili ahal diren ezaugarri gehienak aprobeztatuz, eredu batzuk lantzea da helburua.

Ahozko hiztegia bide horretan kokatzen den ekarpena da. EUDIAk jada bideratua du euskal hizkeretan zehar gordetzen diren ezaugarri prosodikoak zein diren zehazteko ikerketak (Aurrekoetxea eta beste 2012a, 2012b, 2012c).

Ekarpen partziala (lexikoari eta hitza absolutiboan deklinatuta bakarrik aurkezten da) baina aldi berean oso garrantzitsua euskararentzat. Aurkezten den eredu sintesi-lana da: euskalkietan barrena agertzen diren joera edo azentu mota desberdinen artean hautatu behar izan delako, alde batetik, eta euskara estandarrean hitz egitean sortzen den azentuen artean joera nagusienak izan direlako kontuan, bestetik. Ikusmolde linguistikoa, ikusmolde soziolinguistikoarekin uztartu da.

1 Madrilgo gobernuko Hezkuntza Ministerioak (MICINN) diruz lagundutako proiektua da (HUM2007/65094/FILO), 2007-2010 bitartean gauzatzeko.

2 Madrilgo gobernuko Hezkuntza Ministerioak diruz lagundutako proiektua da (FFI 2011-28324) 2011-2014 bitartean gauzatzeko.

3 Beste behin eskertu gura da proiektu honetan kolaboratzaile gisa aritu diren J. I.Hualde, I. Gaminde eta G. Elordieta.

Garrantzitsua dela esan dugu, behin gauzatu gero, euskaldunari tresna bat ematen zaiolako, jakin dezan hitz bakoitza non azentuatu behar duen. Eta garrantzitsua ere aurrerantzean sinergiak norabide berean jartzeko gaitasuna duelako. Prosodiari dagokionez, euskara baturako lehen ereduak izanik, ulertzen dugu agian aldaketaren bat edo beste jasan beharko dituela, aditu eta hiztunen aholku eta nahieren arabera. Ikerketa-taldea irekita dago, hausnarketa berriak egiteko, irizpide berriak erabiltzeko eta egin beharko lirakeen balizko hobekuntzak egiteko. Baina jada eredu bat izango dugu eta horrek aurreko sasoi iluna argitu egiten du.

Ahozko hiztegia egiteko erabaki honetan pisu handia du J. I. Hualdek. Aurretik zetozen eskariak batetik, eta Hualderen (2011) ekarria, bestetik, akuilu eraginkor bihurtu dira ekimena EUDIAk bere gain hartzeko. Hualdek (2011: 20) itauntzen du “ea komenigarria edo posible den araurik ematea”. Eta jarraian “Euskal fonetika irakasteko beharra onartzen badugu, hurrengo galdera izan daiteke ea eredu bera irakatsi behar den leku guztietan”. Bi aukeren aldeko pare bat kasu aipatu ostean, bertako eredurik ez dagoenerako estandarerrako eredu bat proposatzearen alde agertzen da.

Gaiari bere orokortasunean oratuz, proposamen berri honen egileok uste dugu praktikoki ezinezko bihurtzen dela tokian tokiko euskararen azentu-eredua irakastea gure irakaskuntza-sistema eta egoera ezagutuz gero. Batetik, irakasleak inongo eredurik gabe aurkitzen ditugu maiz, eta “etxeko” ereduren bat dutenek ere zalantza askorekin darabilte eta horrez gain, duten ereduak ez dute ezagutzen behar bezala beste inori erakusteko. Bestalde, gure herrian ezarri den irakaskuntza-sistema ez da gai tokian tokiko irakasleak izateko eta sarri gertatzen da euskara tradizionala indartsu dagoen lekuetan, eta bere barnean azentu-eredu propioa indartsu dagoenetan, bertako ereduak inondik ere ezagutzen ez duten euskaldun berriak izatea irakasle.

Honi euskara irakasteko metodoen arazoa gehitu beharko litzaioke. Herri txikia eta aldi berean mugikortasun handia duena izanik, baliabide ekonomiko handi(egi)ak erabili beharko lirake tokian tokiko azentu-sistema erakutsiko luketen material didaktikoak argitaratzeko.

Hori dela eta, malgutasunez eta eredu ahal denik eta sinpleena aukeratzuz, eredu bakarra da hemen proposatzen dena.

Aurkezpen honen ostean lana hiru ataletan banatuta aurkezten dugu. Bigarren ataletan hasierako asmoa eta orain arte egin dugun ibilbidea deskribatzen dira. Hirugarren ataletan *Ahozko Hiztegia* egitean gogotan eduki ditugun balizko erabiltzaileak zeintzuk izan diren azalduko da. Argi dago honen moduko proiektu konplexuetan jende askok hartzen duena parte eta askoren ekarpenak bildu behar direnez gero, laugarren ataletan, parte hartzaile guztien ekarpenak aipatuko dira.

2. Asmoa eta egindako ibilbidea

Askok deitoratu dugu euskaldunon ezina euskara estandarrek azentu arau batzuk eduki ez izana. Ez da gaurko arazoa, aspaldidanik datorrena baizik. Erakunde desberdinak jabetuta daude, Euskaltzaindiak berak ere behin baino gehiagotan oratu dio gaiari. Baina orain artean ez da inor eredu bat praktikan indarrean jartzeko gai izan.

Eta hauxe da praktikan indarrean jartzeko egiten den lehen ekimena. Horretarako orain arteko ibilbidea behin eta berriro aztertu da. Ibilbide honek izan dituen ahuleziak kontuan hartu eta osatu dira. Bestetik, irakasleek dituzten beharrak ere aztertu dira. Eta helburuak zehaztera jo da:

- Euskal azentuaz irakaskuntzan gertatzen den anabasari mugak ipintzea.
- Euskara estandarerrako eredu sinple eta argia proposatzea.
- Proposamen hori praktikan ipintzea euskaldunei eredu praktikoa bat eskainiz, behar duten guztietarako kontsultagai eta eskura ipiniz.

Hiru helburuak gogoan, abian jarri zen ekimena duela urte bete baino gehiago honezkero. Jarritako planean ezarri bezala heldu gara puntu honetara: *Ahozko hiztegia*.

Atal hau azpi-atal nagusi bitan banatuta aurkeztuko dugu. Batetik abiapuntua aztertuko da eta, bestetik, lan osoaren geroko garapena.

2.1. Abiapuntua

Beti egon ohi da hasiera bat, abiapuntu bat. Eta honetan ere bada abiapuntu garbi bat: 2011an Bilbon egin ziren “Prosodiaz eta Hezkuntzaz lehen jardunaldiak”. Eta abiapuntu horretara eraman gintuen asmo bat: euskara estandarerrako azentu eta intonaziorako eredu batzuk sortu eta proposatzea (EUDIA ikerketa-taldeak eskuartearen duen proiektua).

Aipatutako jardunaldietako eztabaidetan parte hartzaile bat baino gehiago mintzatu zen euskara batuan hitz egiteko eredu ezaz eta eredu horren behar gorriaz.

Eskari hori bat zectorren EUDIAk eskuartearen zeukan proiektuaren garapenarekin. Izan ere intonazioaren eredu proposatzeko eredu metriko autosegmentala erabiltza hobetsi zen; era berean, eredu horretan oinarritzen den ToBI (Beckman eta Ayers, 1994; Jun, 2005; Port, 2008 eta Prieto, 2002 besteak beste) intonazioa transkribatzeko eta anotatzeko sistema erabiltzea ere erabaki zen. Sistema honen oinarriek azentuaren kokapena zehaztea eskatzen du.

Jardunaldietako hitzaldiak argitaratzeko unean J.I. Hualdek bikain jaso zuen aipatzen ari garen egonezina eta ondo baino hobeto islatu bere artikuluan (Hualde 2011).

Egia esateko inoiz baino baldintza objektibo hobeagoetan gaude lan honi ekiteko:

- Bada masa kritiko bat: goi mailako ikertzaileak ditugu euskal prosodia ikertzen. Denen gainera J. I. Hualde (azentuari buruzko mundu mailako erreferentzia dena), I. Gaminde (euskal prosodiaz inork baino ikerketa gehiago egin dituen) eta G. Elordieta (euskal intonazioaz diharduen nazioarteko erreferentzia dena), besteak beste. Erreferente horiez gain, bada masa bat horien lanak jarraitzeko gai dena eta euren ekarriak dituen, maila xumeago eta mugatuago batean bada ere.
- Bada datu homogeen nahikoa, kasurik gehienetan, iker atal honi ekiteko eta datuetan oinarriturik arauak emateko.
- Bada ikerketa-talde bat (EUDIA), egiten duenaz zinez sinesten duena eta eskuartean arlo honetan aurrerapenak egitea proposatu diona bere buruari.
- Eta bada, azkenik, ikerketa-proiektu bat, beharrezko babes ekonomikoa lortu duena.

Lau osagai hauek nahikoa dira ekimena abiarazi eta bere muturrera eramateko bitartekoak bilatzeko: izan dadin arlo teorikoan, izan dadin arlo teknikoan, izan dadin arlo juridikoan.

2.2. Garapena

Baldintza horiek eskutan lanean hasi ginen duela zenbait hilabete. Ekinean ekimena aurrera atera da, baina, uste zen bezala, ez da arantzarik gabeko jarduna izan. Proiektuaren garapenean arlo desberdinetan egin behar izan da lan: arlo teorikoan (azentu-eredu estandarreko arauak finkatu ahal izateko egin diren lanak aurkezten dira (2.2.1) batetik, eta bestetik, proposatzen den ereduaren arauak eurak (2.2.2.) aztertuko dira), arlo estrategikoan (hiztegi bat aukeratu), arlo teknikoan (ezarritako arauak hiztegiari txertatu), arlo juridikoan (hiztegi egileekin hitzarmenak eginez).

2.2.1. Arlo teorikoa: Euskara estandarreko eredu finkatzeko egindako lanak.

Aurkezten dugun azentu-eredu estandarren arauak finkatzeko lau arlotako lanetan oinarritu gara. Arlo horiek jarraian zehazten direnak dira:

- Orain arteko proposamenak
- Euskara estandarren gainean egin diren ikerketak
- Gure asmo honetarako egindako ikerketa berri bat
- Pertzepzio testak

Orain arte azentu-ereduaz egin diren proposamenak berraztertu dira ezer baino lehenago. Euskara batuari buruzko azentuaren gainean proposatzaile bi ezagutu dira: Txillardegik eta Hualde.

Txillardegik lau proposamen egin zituen edo proposamena lau aldiz aurkeztu zuen:

- Lehena 1986an: “Proposamen bat azentuari buruz” 1986 (*Euskera* 31, 341-348.).
- Bigarrena 1987an: “Azentuari buruzko proposamen bat” (*Ele* 2, 5-20).
- Hirugarrena urte berean: Euskara batua: Iruñeko proposamena azentuari buruz [*Udako Euskal Unibertsitatea*, 1987].
- Laugarrena ere urte berean: “Euskal azentuz” (*Isilik* 9, 8-12).

Hualde bi aldiz aritu da gai honetaz (1994 eta 2011):

- Lehena “Euskal azentua eta euskara batua” (*Euskera*, 39, 1547-1568).
- Bigarrena “Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako” (Aurrekoetxea, G. & I. Gaminde (arg.), 2011, *Prosodiaz eta Hezkuntzaz. I. Jardunaldiak- I Jornadas sobre Prosodia y Educación*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 11-27).

Bi proposamenak osagarriak dira eta bien laburpen bat egin da abiapuntu legez.

Euskara estandarren produkzioaren ikerketaren emaitzak aztertu dira ondoren. Hiru argitalpen aztertu dira arlo honetan: Gaminde 2010 eta 2011 eta Hualde 2011.

Hitz mailako azentu-sistema ikertzeko hitz-zerrenda bat prestatu zen. Horretarako literatur lan bi aukeratu ziren, bata Iñigo Aranbarraren “Zulo bat uretan” (2008, 2011) eta bestea Xabier Mendigurenek egindako Anton Txekhoven “Ipuinak” liburuaren itzulpena (1990). Liburu bien lexikoarekin 2655 hitzetako zerrenda egin zen (1. taulan hitzen silaban arabera sailkatuta kopuruak eta portzentajeak ematen ditugu).

Silaba kopurua	Kopuruak	Ehunekoak
2	317	11,94
3	1076	40,53
4	750	28,25
5	446	16,80
6	57	2,15
7	9	0,34
Denetara	2655	100

1. Taula: Hitz kopuruak eta portzentajeak berben silaba kopuruaren arabera sailkatuta.

Zerrenda behin eginda, grabatu egin zitzaion esatari bati. Gure esataria Basauriko euskaldun bat izan da, bere ama hizkuntza gaztelania izan bada ere, hiru urterekin hasi zen euskararekin jabetzen eta horrezkero

bere ikasketa guztiak euskaraz egin ditu; gaur egun andereño da ikasketaz⁴.

Datuak aztertuta silaba bikoien kasuan 317tik 300 egin zituen lehen silaban azentuatuta (%94,64) eta 17 bigarren silaban azentuatuta (%5,36). Hiru silabako 1076 hitzetatik 1010 bigarren silaban azentuatuta egin zituen (%93,87), 64 lehen silaban (%5,95) eta 2 hirugarren silaban (%0,19). Lau silabako 750 hitzetatik 739 (%98,53) bigarren silaban azentuatuta egin zituen eta 11 (%1,47) lehen silaban. Bost silabako 446 hitzetatik 439 bigarren silaban azentuatuta eman zituen (%98,43), 6 hirugarren silaban azentuatuta (%1,35) eta 1 lehen silaban azentuatuta (%0,22). Sei silabako 57 hitzetatik bigarren silaban azentuatuta 47 eman zituen (%82,46), hirugarren silaban azentuatuta 7 (%12,28) eta 3 laugarren silaban azentuatuta (%5,26). Azkenik, Zazpi silabako 9 hitzetatik 7 bigarren silaban azentuatuta eman zituen (%77,78), 1 hirugarren silaban azentuatuta (%11,11) eta beste bat bosgarren silaban azentuatuta (%11,11). Datu hauek aztertuta esan dezakegu hemen proposatzen dugun hitz mailako azentu-ereduaren arauekin bat datozela 2559 hitz hau da %96,38a.

A aukera	B aukera
azá	áza
neská	néska
gordé	górde
erré	érrre
mendí	méndi
gárai	garái
límoi	limói
égin	egín
éman	emán
gízon	gizón
lágun	lagún
áurrera	aurréra
íntxaurra	intxáurra
lékua	lekúia
aberátsa	abératsa
alargúna	alárguna
afaría	afaría
iturría	itúrria
serió	sérjo
ziéntzia	zjéntzja

2. Taula: test probarako grabaketaketarako zerrenda

⁴ Bihoazkio gure eskerrik bihorkorrenak lan dorpe honetan laguntzaile bikaina izan den Aiboa Carases lagunari.

Aurreko puntuetan agertu ziren inkongruentziak eta kontradikzioak gainditzeko, pertzepzio testak gauzatu ziren. Testak egiteko bi eta hiru silabako 20 hitz aukeratu ziren: *aza, neska, gorde, erre, mendi, garai, limoi, egin, eman, gizon, lagun, aurrera, intxaurra, lekua, aberatsa, alarguna, afaria, iturria, serio eta zientzia*. Hitz hauek, azentuaren kokaguneari dagokionez, era bitara grabatu ziren (2. taula).

Grabazioak egin ondoan, artxiiboak ebaki egin ziren eta interneteko orri baten bidez zabaldu ziren erantzun orri batekin. Informatzaileek entzuten zituztenen artean euskara estandarerako egokiena irizten ziotena aukeratu behar zuten bikotetan. Denetara 297 erantzun jaso ziren.

Informatzaileen ezaugarriari dagokionez, 210 andrazkoak izan ziren eta 87 gizonezkoak. 1947 eta 1993 urte artekoak izan ziren denak; belaunaldi bi eginez gero, 66 1947-1990 urte artekoak izan ziren eta 231 1980-1993 urte artekoak. Jatorriari begira 13 arabarrak izan ziren, 147 bizkaitarrak, 53 gipuzkoarrak, 16 lapurtarrak, 8 Nafarroa Beherekoak eta 60 Nafarroa Garaikoak. Ikasketak egineko eskola ereduaz galdetu zitzaizen eta 30 A ereduaz ikasikoak izan ziren, 20 B ereduaz eta 247 D ereduaz. Euren ama hizkuntzari dagokionez, euskara ama hizkuntzatzat eduki dutenak 151 izan dira, euskara eta gaztelania 14k eduki dute, euskara eta frantsesa 3k, euskara eta besteren bat 1ek, frantsesa 5ek eta gaztelania 123k.

3. taulan informatzaileen erantzunetan gailendu ziren aukeren kopuruak eta portzentajeak ematen dira eta erakusten den moduan, hitzen arteko aukerak guztiz homogeneoak ez diren arren, joera nagusiak oso argi agertzen dira.

Aukera	kopurua	portzentajea
áza	218	74,91
néska	246	84,54
górde	212	72,85
érre	212	72,85
méndi	207	71,13
garái	271	93,13
limói	272	93,47
egín	211	72,51
emán	171	58,76
gizón	266	91,41
lagún	247	84,88
aurréra	166	57,04
intxáurra	257	88,32
lekúa	207	71,13
abératsa	256	87,97
alárguna	281	96,56
afária	286	98,28
itúrria	270	92,78
sérjo	264	90,72
zjéntzja	232	79,73

3. Taula: Pertzepzio testetan gailendu ziren aukeren kopuruak eta portzentajeak.

2.2.2. Arlo teorikoa: Ereduaren arauak

Aurreko azpi-atalean erakutsi ditugun iturri guztiak aztertuta eta ahozko hiztegiari dagokionez, euskara estandarren hitz mailako azentu-sistemaren arauak ondoko era honetara laburbil daitezke.

- Hitz hartzen da azentu-eremutat. Izenen eta adjektiboen kasuan erroa gehi mugatzailea eta aditzen kasuan partizipioa.

lúrra, bertsólaría, mendía, emán...

Sintagmen azentuazioa eta aditz jokatuena oraingoz bazter uzten dugu.

Hitzetan silaba kopuruak kontatzen dira eta silaba bikoien kasua bereizi egiten da gainerakoetatik. Silaba biko hitzetan azken silaba astuna bada azken silaban txertatzen da azentua. Silaba astunak dira, adibidez, *-n* letrarekin amaitzen diren aditz partizipioak:

eman, egon, esan ...

Era berean silaba astuntzat hartzen dira azken silaban beheranzko diptongoren bat daukatenak, nahiz eta hemen darabilgun ahozko hiztegiaren gailen horrelakoak agertu ez:

baloi, limoi, garai...

Arau honen arabera, silaba astuna dagoenean, azentua bertan txertatuko litzateke:

emán, egón, esán...

Azken silaba astuna ez bada, azentua ez da bertan inoiz txertatzen, hots, azken silaba arina denean estrametrikala da eta silaba bikoien kasuan libre geratzen den silaba bakarrean txertatuko da.

érre, áita, íto, lúrra, úra, e.a.

Euskara estandarrean ez dago hitz markaturik. Gure ereduak ez du hitz markaturik bereizi. Orain artean bildutako informazio guztia gogoan hartuta hitz markatuen arazoari irtenbide egokia aurkitzea ez da erraza, ikusmolde soziolinguistikotik begiratuz. Egia da badirela hitz batzuk prosodikoki markatu (azentudun hitzak) bezala agertzen direnak eremu zabalean. Batzuk eremu zabalagoan ezagutzen direnak (*lékua, básua...*), beste batzuk murrizagoan (*bázkari, íntxaurra...*). Eredu simple eta erraza egin nahian, eta edozein eratako euskal hitzunarentzat oztopo izan beharrean lagunduko diona aurkitzeko gogoz egin da hautaketa hau.

Hitz markatuak egiten ez badira, gorago aipatu ditugun kasuetan izan ezik, gainerako guztietan azentua hitzaren hasieratik kontatzen hasita bigarren silaban txertatuko da ([2 arauaren arabera]). Azentu mota hau da hedatuena hizkera tradizioaletan, nahiz ez den orokorra euskararen eremuan; bestalde, ea hegemonikoa da euskara estandarrean hitz egiten dutenen artean (Gaminde 2011, Hualde 2011).

Gramatikaren ikuspuntutik, arauok ordenan aplikatzen direla esan dezakegu. Egiten direnak ondoko era honetara labur ditzakegu:

1 Silaba bikoak bereizi ()

2. Silaba astuna markatu *

3. Silaba arinak estrametrikoki bihurtu <

4. Azentua txertatu silaba astunetan eta astunik ez badago [2 arauaren bidez edo libre dagoen silaba bakarrean.

	ura	esan	erre	alarguna
1	(ura)	(esan)	(erre)	
2		* (esan)		
3	(u<ra>)		(e<rre>)	alargu<na>
4	(ú<ra>)	(ésan)	(é<rre>)	alárgu<na>

4. Taula: azentua ezartzeko arauak.

Arauen aplikazio eremua oraingoz hitz mailakoa da. Hau da gure *Ahozko Hiztegia* egiteko hiztegi sarreraren ondoan entzungo dena izena edo adjektiboa gehi mugatzailea izango da eta aditzen kasuan partizipioa.

Beste esparru batzuk, hala nola sintagmen eta aditz jokatuena azentu arauen aplikazioa nola gauzatzen den, bidean diren beste ikerketa batzuk dira. Era berean, hitz luzeen azentu bigarrenkariaren arazoa gerorako utziko dugu oraingoz.

Hemen proposatzen den eredia tradizioan izan diren eredueta gehien hurbiltzen dena da. Horrez gain, euskara estandarrean ari direnek maizen eta ugarien egiten duten eredia dugu. Honekin egiten duguna ondokoa da: honezkero sortua den eta egiten den eredia indartu eta finkatu.

2.2.3. Arlo estrategikoa

Euskara estandarreko ezaugarriak txertatzeko hiztegi bat aukeratzea izan da hurrengo urratsa. Hiztegi motari dagokionez, hiztegi elebiduna aukeratu zen, izan ere, hitzaren ahoskera baino jakin nahi ez dutenek bilaketak euskaraz egin ditzakete eta hitza entzun, baina erabiltzaile askok hitzaren esanahia ere jakin nahi izango dutela uste izanda, bilaketak erdaraz egiteko aukera ematea beharrezkotzat jo genuen. Egin dugun hautuan ez dago frantsesez bilaketak egiterik, aurrerantzean arazo hau konpondu beharko dela uste dugu.

Ondoren hiztegi bat aukeratzeko prozedurari ekin zitzaion eta aukera guztiak aztertu ondoren *3000 HIZTEGIA* aukeratu zen.

2.2.4. Arlo juridikoa

Behin arauak aplikatzeko hiztegia aukeratuta, hiztegia argitaratzen duen elkartearekin harremanetan sartu eta arlo juridikoa zehazteko urratsak egin ziren. Urratsok hiztegi egileekin egindako hitzarmen baten gauzatu ziren, zeina UPV/EHUko errektoreak eta Bostak Bat elkarteko zuzendariak izenpetu zuten.

Hitzarmenak bi aldeei ekartzen dizkie onurak: ikerketa-taldeari euren ikerketen emaitzak aplikatzeko tresna bat eskuetan jartzen zaielako; Bostak Bat Elkarteari euren hiztegia aberastu egiten delako, baliabide berriak eskainiz. EUDIA ikerketa-taldeak baimena izango du *3000 HIZTEGIA*ren basea erabiltzeko, baina soilik ikerketarako eta helburu akademikoetarako. Bostak Bat Elkarteak izango da hiztegi aberastu honen merkataritza erabilera egiteko eskubidea duen bakarra.

Baliabide hauek erabiltzeko ezinbestean formatu informatikoa erabili beharko da, ez liburu formatua. Euskarri informatikoaz den ber ustiaketa komertzialean unean uneko tresna eta baliabideak erabiliz erabakiko dira formatuak.

Aurrerantzean eta esperientzia honek fruitu onak ematen baditu, ikerketa-taldeak aztertuko du beste hiztegietara zabaltzeko aukera. Zeren azken helburu legez, euskarak ere baliatu behar du hizkuntzalaritza aplikatua bere aldeko egiten; eta bide honetatik, euskarari buruzko ikerketak aplikagarriak diren neurrian euskaldungoaren esku uzteko beharra dugu, euskara gainerako hizkuntzak bezala garatua izan dadin nahi badugu behintzat.

2.2.5. Arlo teknikoan

Arlo zientifiko eta juridikoa finkatuz gero, EUDIAko arduradunek arlo teknikoa garatzeko EHUko Aholab ahotsa prozesatzeko laborategiarekin (<https://aholab.ehu.es>) jarri ziren kontaktuan. Aholab laborategiaren eta Eudia ikerketa-taldearen harremana aspaldikoa da. Aholab-ek proiektu desberdinetan ematen dion aholkularitza teknikoaz gain, tresna informatikoak garatu ere egin dituzte. Horien artean aurkitzen da EDAK *corpusa* (<https://aholab.ehu.es/edak/>).

EUDIA ikerketa-taldeak bi informazio mota helarazi dizkio Aholab laborategiari: Bostak Bat elkartearen *3000 HIZTEGIA*ren euskal sarrerak eta euskara estandarretarako finkatutako azentu arauak.

Aholab-ek arau horiek erabiliz ahots sintetizagailua prestatu eta hiztegi sarrerei aplikatu dio. Baliabide teknologikoak erabiltzeko konpromisoaren ondorio da ahots sintetikoa erabiltzea. Ondorioz, erabiltzaileak entzungo duen ahotsa ez da gizaki-ahotsa izango, ahots sintetikoa baizik.

3. Norentzat

Lehen eta behin euskararen profesionali begira egin da ekarpen hau. Gure lanbidetzat euskara dugunontzat ezinbesteko langaia dugu azentu-eredu bat izatea. Euskarak ezin iraun dezake arlo honetako eredu barik, izan ere, intonazioaren eta prosodiaren gainerako arlo guztien garapenak oinarritzen dira azentuaren informazioetan. Azentu-eredu ezak gainerako arlo guztiak ezin garatzea inpliketzen du. Horregatik guztiagatik gure ekarpena garrantzitsua dela uste dugu. Euskara estandarrak badu dagoeneko bere morfologia, bere sintaxia, bere lexikoa, toponimia zuzen erabiltzeko arauak, e.a.

Baina ahoskeran ez du oraindik eredu formala landu. Ulertzen dugu beharbada gauzak gainerako arloetan baino zailagoak direla arlo honetan. Jakitun gara arlo honetan adituak diren guztiek ere ez dutela arazoa berdin ikusten: batzuentzat ez da beharrezko forma batua ezartzea, beste batzuentzat ez da komenigarri forma batu bakarria ematea, e. a.

Euskara batuaren beharra sentitu zenean ere izan zen bat baino gehiago batu bakarraren behar hori sentitu ez zuenik. Hala ere, gehiengoaren gogo aintzat hartuz, poliki-poliki hizkuntzaren arlo desberdinetan forma

batua garatuz joan da. Eta hala, izenaren zein aditzaren morfologian, sintaxian, lexikoan egin den bezalaxe ez ote da posible azentuan egitea? Hobe ote da euskal hiztunak euskaraz aritzean non eta nola azentuatu jakin gabe ibiltzea, euskal hizkeretan zehar diren eredu (on)etatik bat aukeratu eta estandarerako jartzea baino? Gu eredu baten aldekoak gara, garbi. Noraezean, eredurik gabe, ibiltzea baino nahiago dugu eredu bat izatea, jakinik ere eredu horrek ez dituela euskararen azentu-molde guztiak barne hartzen eta eredu propioa duten euskaldun batek baino gehiagok ikasi behar izango duela; bidenabar, morfologian edo beste arloetan ikasi behar izan dugun bezalaxe, ez gehiago, ez gutxiago.

Eredu honen bidez esatari, irakasle, andereño, aktore eta euskararen gainerako langileek erreferente bat izango dute, zalantza dutenean, etxeko betiko eredurik ez dutenez, ez dakitenean edo irakatsi behar dutenean nora jo eta non ase edo gainditu euren beharrez. Horiek guztiak kontuan izanik, ikasliburuetan edo nonbait argitaratuta izan behar da behingoz mundu guztiak jakin dezan ereduak zein den.

Ahozko hiztegia tresnak ondoren baliabide didaktikoak garatu beharko ditu, eskoletan ereduak ikasten eta erabiltzen lagunduko dutenak. EUDIA ikerketa-taldeak sortuko ditu material didaktikoak ere bide honetan.

4. Parte hartzaileak

“Ahozko hiztegia” proiektuan partaide desberdinak izan dira. Batzuk arlo zientifikoan hartu dute parte, beste batzuk teknikoan.

Arlo zientifikoari dagokionez, ikerketa-proiektuko partaide gisa ondokoak ari dira parte hartzen: G. Aurrekoetxea, I. Gaminde, L. Gandarias, A. Iglesias, A. Etxebarria, A. Romero.

3000 HIZTEGIA-ren jabea den Bostak Bat elkarteak arduradunak eta kide zenbait, datu-baseko informazioa prestatzeko agindua izan dutenak.

Arlo teknikoan Aholab laborategiaren partaidetza oso garrantzizkoa da. Lan honetan laborategiaren arduradun eta ikertzaile nagusia den Inmaculada Hernández-en laguntza izan dugu.

5. Bibliografia

Aranbarri, I., 2008, *Zulo bat uretan*. Susa. <http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuok.pl?lib=narr79>

Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., Iglesias, A., 2012a, “Prosodic Variation in the Basque Language: Stress Areas” (argitaratzeko) in Proceeding of LimiAr conference, Lisboa, 2011.

Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., Iglesias, A., 2012b, “Prosodic Variation in the Basque Language: Stress Areas” (argitaratzeko) in X. Alvarez, E. Carrilho & C. Magro, Current

Approaches to Limits and Areas in Dialectology, Cambridge: Cambridge Scholars Publishing.

Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., Iglesias, A., 2012c, “Stress accent in Basque: From the traditional dialects to the standard variety”, 7th SIDG (Viena 2012) biltzarrean aurkeztua.

Beckman, M. eta Ayers, M., 1994, “Guidelines for ToBI labelling”, eskuizkribua, Ohio State University (3.0 bertsioa, 1997: http://www.ling.ohio-state.edu/phonetics/E_ToBI).

Bostak Bat, 1996, *3000 Hiztegia*, Bostak Bat Bilbo

Brown, P. eta Levinson, S. (1978) "Politeness", in E.Goody (Ed.) (1978) *Questions and Politeness*, Cambridge: C.U.P.

Brown, P. eta Levinson, S. (1987) *Politeness. Some universals in language usage*, Cambridge: C.U.P.

Fujisaki, H. (2004) "Information, Prosody, and Modeling", Proceedings of Speech Prosody, Nara, Japonia

Gaminde, I., 2010, *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelaniaz*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea and Bizkaiko Foru Aldundia.

Gaminde, I., 2011, “Noraka euskal azentuak?”. In G. Aurrekoetxea & I. Gaminde (arg.) *Prosodia eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak*. Bilbo: UPV/EHU, 63-85.

Gaminde, I., Etxebarria, A., Garay, U. eta Romero, A. (2011) “Bokatiboa eta gaitasun prosodikoa: lehen urratsak” *Uztaro-79* (5-23)

Gaminde, I.; Etxebarria, A.; Garay, U. eta Romero, A. (2012): “Komunikaziogaitasunetik kultura arteko komunikazio-gaitasunera: Baliabide didaktikoak” in Mendebalde Kultura Alkartea: *Hizkuntzaz Jabetzen* (0-6). 209-251

Hualde, J. I., 1994b, “Euskal azentuak eta euskara batua”. *Euskera* 39-3. 1549-1568.

Hualde, J. I., 2011, “Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako” (Aurrekoetxea, G. & I.Gaminde (arg.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz. I. Jardunaldiak- I Jornadas sobre Prosodia y Educación*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 11-27.

Jun, S., 2005, *Prosodic Typology. The Phonology of Intonation and Phrasing*. Oxford University Press: Oxford.

Mendiguren, X., 1990, *Ipuinak*, A. Chejiven liburuaren itzulpena. Ibaizabal.

Port, R., 2008, "ToBI Intonation Transcription Summary" <http://www.cs.indiana.edu/~port/teach/306/tobi.summary.html>

Prieto, P., (koor): 2003, *Teorías de la Entonación*. Ariel Lingüística, Bartzelona

Txillardeggi, 1984, *Euskal Azentuaz*, Donostia: Elkar.

Txillardeggi, 1986, “Proposamen bat azentuari buruz” 1986 (*Euskera* 31, 341-348.).

Txillardeggi, 1987a, “Azentuari buruzko proposamen bat” (*Ele* 2, 5-20).

Txillardeggi, 1987b, *Euskara batua: Iruñeko proposamena azentuari buruz*, Udako Euskal Unibertsitatea.

Txillardeggi, 1987c, “Euskal azentuaz”, *Isilik* 9, 8-12.